

Aztarnategi garrantzitsua aurkitu dute Andoaingo Buruntza mendian

Gutxi ezagutzen den Burdin Aroa aztertzen lagunduko du

Andoaingo Buruntza mendian egin den aurkikuntza arkeologikoa ezagutarazi zuten atzo. Mendi honetan Burdin Aroko 'kastro' motako gotorleku bat aurkitu da. Aurkikuntza honen garrantzia, oso gutxi ezagutzen den aro historiko honen datu berriak jasotzean datza.

AITOR UGALDE / ANDOAIN


Buruntza mendian aurkitu den Burdin Aroaren garaiko aztarnategiaren berri eman zuten atzo Andoaingo Udalak. Carlos Olaetxea Aranzadi zientzi elkartereko kide eta indusketa hauen zuzendariak argitu zituen aztarnategi honen ezaugarriak.

Olaetxeak esan zuenez, Buruntza mendian aurkitutako eraikuntza Burdin Arokoa da, gutxi gorabehera K.a. 500 urtetik erromanizaziora bitartekoa. 'Kastro' deitzen den eraikuntza mota bat dela azaldu zuen. Bere ustez, garrantzi handiko indusketa da Buruntza mendian egindakoa. Horren arrazoia, eraikuntza egin zeneko garaia —Burdin Aroa— oraindik ere ezezaguna izatean datza. «Burdin Aroaren aurrekoak hobeto ezagutzen dira, besteak beste, Barandiaran eta Altuna ikerlariak egindako lanaren ondoren», adierazi zuen Olaetxeak.

Buruntzako aztarnategi hau leku estrategikoan kokatuta dagoen gotorlekua da. Hegoaldera begira neurri txikiko terraza bat ageri da. Terraza horren inguruan harresi edo horma mota bat dago, terraza guztiz inguratzen duena. Terrazaren alde bateko zein besteko muturrak iparraldeko zona aldapatsuenetara ematen du.

Olaetxeak esan zuenez, Burdin Aroko eraikuntzen ezaugarri berdintsuak ditu, defentsarako leku estrategiko batean kokatua baitago. «Nafarroan eta Araban kastro asko daude, Gipuzkoan eta Bizkaian, berriaz, oso gutxi ezagutzen dira. Hori ez da logikoa, bi probintzia hauetan aurreko aroetako aztarnategi ugari daudelako». Era honetako aztarnategiak aurkitzeari ekin zion Aranzadi zientzi elkarteak eta lan horren ondorio izan da aurkikuntza hau. Gipuzkoaren kasuan, batez ere Oria ibaiaren inguruan aurkitu dira aztarnategi nagusiak.

Aurtengo uztailan egin zen indusketako lehen kanpaina. Hamabost egun iraun



Carlos Olaetxea. ANDER GILLENEA

zuten indusketa hauetan aztarnategiak zer eman zezakeen jakin zuten. «Emaita oso positiboa izan da, terraza inguratzen duen horma nolakoa den jakiteaz gain aurkikuntza arkeologikoa ere egin ditugulako», esan zuen Olaetxeak.


Aurkitu diren material arkeologikoen artean aipatzekoa da identifikatu gabeko burdinazko tresna bat. Aurkikuntza horren ondorioz, Burdin Aroaren garai aurreratu batetan kokatu ahal izan da aztarnategi hau. Horretaz gain zeramikazko material ugari azaldu dira, batez ere eskuz egindako ontzi dekoratuak. Suharritzko tresna batzuk ere jaso dira bertan. Data hobeto zehazteko 'Carbón 14' proba egiten ari dira EEBBetan.

Indusketak egiten hasi aurretik zenbait urrats eman ziren. Lehenik plano topografikoa egin zen, Andoaingo arau subsidiarioetan sartzeko eta babestuta egoteko. Ondoren aurten prospekzio geografiko bat egin da indusketak hasi aurretik azpian dagoena ezagutzeko. Lurraren ezaugarriaren ondorioz, ez da hezurrik aurkitu.

Olaetxeak indusketekin jarraitzeko asmoa azaldu du. Hurrengo urteetako lana harresiaren barruan bizi zirenen etxeak eta material ugariagoak bilatzera bideratu beharko litzatekeela adierazi zuen.



BURUNTZA mendiko harresiaren zati bat da ANDER GILLENEAREN argazkian ageri den hau. Datorren urteko udan berriro lanekin jarraitu aurretik estalita utzi dituzte aurten egin diren indusketa hauetako zatirik handienak. Kontserbazio arazorik agertzen ez dituzten harresiak bakarrik geratu dira estali gabe.



Amarica aretoan erakutsiko dituzte lehiaketarako lanak.

OLALDE

Arabako sei artista gazteren obrak erosi ditu Diputazioak

L. K. G. / GASTEIZ

Arabako Foru Aldundiak antolatzen duen Amarica Urteroko Lehiaketara aurkeztu ziren 93 artistetatik sei saritu eta beren obrak erosi ditu. Diputazioak Arte Ederretako Museoan jarriko ditu Javier Tudela, Juan Carlos Meana, Arturo Rodríguez, Pablo Milicua, Txaro Arrazola eta Alfredo Alvarez Plagaroren lanak.

Horrezaz gainera, Amarica arte aretoan erakutsiko dituzte lehiaketara aurkeztu zituzten 152 obretako batzuk. Diputazioak Kultura saileko arduradunek aukeraturik.

Lehiaketak arte plastikoak jorratzea nahi duenez, «bai eskultura eta baita pinturarekin ere zerkusia zuten obrak aurkeztu zituzten eta horregatik bata eta bestearen arteko muga non zegoen oso ondo jakiterik ez ze-

goen», azaldu zuen Sara González epaimahaikideak.

Azkenean saritutako sei artistak aukeratzeko moduari dago-kionez, elkarren artean erlazio-natutako bi irizpide erabili zituzten, «autore batzuen obrak ez zirelako oso onak, baina bai egile horren eboluzioa eta alderantziz ere bai».

Dena den, Amarica Urterokoak jarraipena izango duenez, «datozen edizioetan beste artista batzuek saria jasotzeko aukera izango dute», esan zuen Gonzálezek.

Beste alde batetik, Diputazioak atzo jakinarazi zuenez, Carmen Vicente da 1992ko Ernestina de Champourcin Poesia Lehiaketaren irabazlea, 'De puertas adentro' obrari esker. Epaimahaikideek esan zutenaren arabera, aurten ez dute euskarazko lanik jaso.

EIBARKO LIBURU AZOKA

Untzaga enparantzan
Azaroaren 6tik 15era

EUSKAL ETA ERDAL AZKEN
LITERATUR NOBEDADEAK
EUSKAL DISKAGINTZA

Denak %10 merkeago

Ordutegia: 11.30 - 14.00
17.30 - 21.30

B I Z I
I R A K U R R I Z
EUSKADIKO LIBURU
AZOKEN BATZORDEA